

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Jose Ignazio Ansorena Miner Piter

*Donostia,
Gipuzkoa
(1953)*

Aurkibidea



Biografia



Konstituzio plazan jaioa, musikarako zaletasun handia zuen familia batean: Isidro Ansorena txistulari ospetsua zuen aitona, eta harekin egin zituen txistu-danbolin ikasketak. Don Eugenio Goya maisuaren eskolan ibili zen mutikotan, eta Mundaizko korazonistetan ere bai.

Ondoren Filosofia eta Letrak ikasketak egin zituen, Deustun. Gaztetxotan euskal giroan murgiltzen hasi zen, Kresala dantza taldearen bitartez. Hantxe sortu zuten lehenengo pailazo-taldea: Kixki, Mixki eta Kaxkamelon. 13 urtean batera eta bestera ibili ziren. Txirri, Mirri eta Txiribiton etorriko ziren gero, 1984an: ETBrako “Don Don Kikilikon” programarekin hasi ziren, eta ibilbide oparoa izan zuten. Telebistan showman eta aurkezle moduan ere ibili zen. Hori bai, ogibidez musikaria da: txistularia eta konpositorea, Donostiako Kontserbatorioko zuzendari ere izan da. Irakasle lanetan ere jardun du, ikastetxeetan. San Telmo museoan egindako elkarrizketa.

Zintak

DON-200

- **Proiektua:** Donostiako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2021-04-22
- **Iraupena:** 162 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Unamuno, Arianne

Pasarteak

1. Bere gaitzizenak

- **Erref:** DON-200/002
- **Iraupena:** 0:01:37. **Hasi:** 00:00:20. **Bukatu:** 00:01:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Gaitzizenak

Laburpena:

<p>Gaitzizen asko izan ditu.</p>

2. Amona tolosarraren kontuak

- **Erref:** DON-200/004
- **Iraupena:** 0:02:48. **Hasi:** 00:03:30. **Bukatu:** 00:06:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Esaerak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Amaren ama tolosarra zen. Kanta bat erreztatzen du: "Tolosa, villa famosa, ipurzikin, zikiñosa. Altza gibosa!". Anai-arreba asko ziren. Amaren aita, donostiarra zen baina; aita Hernanikoa zuen eta ama ordiziarra. Amona, alargundu zenean, apopiloak hartzen hasi zen eta batekin ezkondu egin zen.

3. Aitona Isidro Ansorena txistularia

- **Erref:** DON-200/006
- **Iraupena:** 0:01:17. **Hasi:** 00:08:46. **Bukatu:** 00:10:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Aitona Isidro Ansorena txistulari maisuen maisua zela zioten. Oso pertsona ona, dotorea eta umoretsua zela dio. Maisu izan zuen bere azken urteetan.

4. Aitona Isidrori gerran gertatutakoa

- **Erref:** DON-200/007
- **Iraupena:** 0:03:51. **Hasi:** 00:10:03. **Bukatu:** 00:13:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Gerra garaian, udaletxeko langilea zen bere aitona Isidro. Abertzaleek eta nazionalak akordioa egin zuten, nazionalak Donostiara sartzen zirenean, eraikin nagusiak eta hango ondasunak babesteko. Aitonari kutxa gotor bat eman zioten, gerra ostean ganorazko alkatea jarritakoan, hari eman ziezaion. Ondoren, salaketa bat jarri zioten.

5. Txistua ikasteko metodoak

- **Erref:** DON-200/008
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:13:54. **Bukatu:** 00:15:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Hilario Olazaran txistulari kaputxinoak atera zuen txistua ikasteko lehenengo metodoa, Isidro Ansorenaren laguntzaz. Gerra ostean, Isidrok beste metodo bat prestatu zuen, osatuagoa. Haren lanari men eginez, Piterrek beste metodo bat atera zuen.

6. Aitona Isidro Inazio Lojendio eta Orixeren txistu maisu

- **Erref:** DON-200/009
- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 00:15:49. **Bukatu:** 00:17:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Aitona Isidrok eskola partikularrak ematen zituen, eta hainbat pertsonai ezagunen irakasle izan zen: Inazio Lojendio (oso familia aberatsekoa eta euskaltzalea) eta Nikolas Ormaetxea, Orixe, poeta (txisturako balio ez eta atabala jotzen zuen).

7. Aitona Isidroren seme-alabak musika ikasitakoak

- **Erref:** DON-200/010
- **Iraupena:** 0:03:26. **Hasi:** 00:17:36. **Bukatu:** 00:21:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Bere aitona Isidrorentzat, bizitzak musika dauka, soinua, erritmoa... Berak uste zuen jende guztiak musika ikasi behar zuela, eta bederatzi seme-alaba hala hezi zituen. Abesbatzak osatzen zituzten. Izeba Martinak abesbatzak sortu zituen.

8. Osaba Jose Luis Ansorenak egindakoak

- **Erref:** DON-200/011
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 00:21:02. **Bukatu:** 00:22:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Osaba Jose Luis Ansorena kaputxinoa zen, eta egon zen lekuetan abesbatzak sortu zituen. Erreterian Andra Mari korua sortu zuen, baita gaztetxoena, umeena eta gehiago ere. Musikaste sortu zuen eta haren ondoren Eresbil.

9. Izeba zoragarriak

- **Erref:** DON-200/012
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:22:45. **Bukatu:** 00:23:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Amaren ahizpa, izeba Korito, eta haren senarra, beraien bigarren gurasoak modukoak izan zirela dio. Izeba Isabelita, berriz, moja sartu zen; oso emakume zoragarria zela dio: bizia, umoretsua, antzezle ona...

10. Euskara klase baxukoentzat zen

- **Erref:** DON-200/013
- **Iraupena:** 0:03:18. **Hasi:** 00:23:55. **Bukatu:** 00:27:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua

Laburpena:

Etxean erabat erdaraz egiten zuten. Aitonari salaketa jarri ziotenean, beldur izugarria sortu zitzaien. Euskararekiko errepresioarekin batera, euskara klase baxukoen kontua zelako ustea zabaldu zuten. Baserritarrak eta arrantzaleak entzuten zituzten euskaraz. Norbaiti euskal azentua nabaritzen bazitzaion, "kaxero" esaten zioten. Adibide bat jartzen du.

11. Amoneri entzundako euskarazko hitz eta kontuak

- **Erref:** DON-200/014
- **Iraupena:** 0:02:47. **Hasi:** 00:27:13. **Bukatu:** 00:30:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua

Laburpena:

Birramona Eusebi euskaraz entzuten zuen ahizpekin, baxu-baxu, baina ez zuen ezer ulertzen. Amona Generosari esaerak entzuten zizkion tarteka; zigarroak biltzen zituen bitartean, bertso-sortak abesten zituen. Hitz solteak besterik ez zekizkien euskaraz.

12. Eskola frankistako kantak eta kontuak

- **Erref:** DON-200/015
- **Iraupena:** 0:03:34. **Hasi:** 00:30:00. **Bukatu:** 00:33:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

Zazpi urtera arte, eskola nazionaletan ibili zen, Urgull mendira bidean. Egunero Espainiako himnoa, "Cara al Sol" eta "Por Dios, por la patria y el Rey" abesten zituzten. Jatun ona izatearren eta txertoak jartzerakoan beste ikasleentzat eredu izaten ziren. Esne hautsa eta gazta ematen zizkieten.

13. Lasallera ezin joanda, fraide bati aurre egitearren

- **Erref:** DON-200/016
- **Iraupena:** 0:03:45. **Hasi:** 00:33:34. **Bukatu:** 00:37:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak

Laburpena:

Alde Zaharrean hiru ikastetxe zeuden: La Salletarrak, eskola nazionalak eta Don Eugenio Goya irakaslearena. La Salletarrean ikastaro bat egiten zuten abuztuan, ikasleak aukeratzeko. Hermano Tomas izeneko fraide nazkagarri bati aurre egitearren, ez zuten aukeratu.

14. Don Eugenio Goya irakaslearekin

- **Erref:** DON-200/017
- **Iraupena:** 0:02:51. **Hasi:** 00:37:19. **Bukatu:** 00:40:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

Don Eugenio jeinua zela dio, oso pertsona librea eta aldi berean oso zorrotza. Lehenengo eguna nolakoa izan zen kontatzen du. Garai hartan umeei jotzea oso ohikoa zen, eta gurasoek hala eskatzen zieten irakasleei gainera.

15. Umeak jotzea, ohikoa

- **Erref:** DON-200/018
- **Iraupena:** 0:03:02. **Hasi:** 00:40:10. **Bukatu:** 00:43:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

Laburpena:

Umetan zigarroa erretzearren gizonezko batek zaplaztekoa eman zionekoa kontatzen du. Garaiko kulturaren parte zen umeak jotzea. Eskolan egiten zituzten gaiztakeriak kontatzen ditu.

16. Eugenio Goyarenean, batxilergoa eta guzti

- **Erref:** DON-200/019
- **Iraupena:** 0:03:17. **Hasi:** 00:43:12. **Bukatu:** 00:46:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

Ikasketa orokorrak eta batxilergoa egin zituen Eugenio Goyarekin. Batxilergoko ikasketetan oso ikasle gutxi ziren. Oso gizon erlijiosoa zen Eugenio. Don Jose Luis Ruiz Akizu apaiz gaztearekin prestatzen zituzten azterketak. Eliz-mutil ibili zen eta propina asko jasotzen zituela kontatzen du.

17. Mundaizko fraidearen mendekua

- **Erref:** DON-200/020
- **Iraupena:** 0:04:52. **Hasi:** 00:46:29. **Bukatu:** 00:51:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak

Laburpena:

"Sagrado Corazón Mundaiz" eskolan ordu asko egiten zituzten; eguna luze eta aspergarria egiten zitzaion. Hermano Tomas izeneko bati "cicuta" deitzen zioten; bere eskaera bati ezezkoa ematearren, fraideak mendeku hartu zionekoa kontatzen du.

18. Aitona eta aita, zorrotzak baina izpiritu librekoak

- **Erref:** DON-200/022
- **Iraupena:** 0:03:24. **Hasi:** 00:53:52. **Bukatu:** 00:57:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Aitona eta aita oso zorrotzak ziren, baina zuzentasuna eskatzeko, justiziaz jarduteko. Aldi berean, oso libreak zirela dio. Donostian uraren presioarekin arazoak izaten ziren. Beraien eraikinean obra egin beharra izan zutenean, aitak jakin zuen azpian zegoen esnetegiak ura harrapatzen zuela, eta izugarri haserretu zen.

19. Txistulariak igandetan

- **Erref:** DON-200/023
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:57:16. **Bukatu:** 00:58:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Aitona Isidro igandero goiz deia edo argi soinua jotzen aritzen zen; ondoren txistularien kontzertua egiten zen eta arratsaldean erromeria jotzen zuten. Umeak dantzan aritzen ziren.

20. Euskara ikasteko irrika

- **Erref:** DON-200/024
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 00:58:46. **Bukatu:** 01:00:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua

Laburpena:

Kresala elkarteak sortu zenean, hamalau urte zituela, dantzari taldea sortu zen eta hantxe hasi zen lagunekin batera. Gero, Kaiola liburu-dendan liburuak erosi eta euskara ikasten hasi zen. Kantuen bildumek irrika sortu zioten.

21. Kresalako haurrentzako jaialdiak

- **Erref:** DON-200/025
- **Iraupena:** 0:02:11. **Hasi:** 01:00:32. **Bukatu:** 01:02:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Aisia » Kultura

Laburpena:

Kresala elkarteak haurrentzako jaialdiak antolatzen hasi ziren; funtzio bat egiten zuten eta gero merienda. Pailazo hasi zenean, ez zekien apenas euskaraz. Kresalako giroan hasi zen euskaltzaletzen.

22. Pailazo taldea osatzeko ideia

- **Erref:** DON-200/027
- **Iraupena:** 0:04:01. **Hasi:** 01:05:04. **Bukatu:** 01:09:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia

Laburpena:

Ausartak, lotsagabeak eta ekintzaileak zirenez, saltsa guztietan ibiltzen ziren; Aranzadin ere bai. Pailazoak ikustera hamalau urtera arteko umeak joaten ziren orduan. Norbaiten ideiarengatik, pailazo taldea osatzea erabaki zuten. Hiru pertsonaiak izendatzen ditu.

23. Pako Etxebeste laguntzaile

- **Erref:** DON-200/028
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 01:09:05. **Bukatu:** 01:11:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia

Laburpena:

Pako Etxebeste laguntzaile izan zuten; pailazoarena egiten aritua zen Jose Agustin Arrietarekin batera. Lehendabiziko pailazo galtzak hark oparitu zizkion. Jaime Zurbano eta Txema Zubia ibiliak ziren pailazo moduan Alde Zaharrean. Aieteko ikastolako batzuek ikusi zituztenean, hara gonbidatu zituzten.

24. Joxe Miel Barandiarani omenaldia egin ziotenekoa

- **Erref:** DON-200/029
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 01:11:12. **Bukatu:** 01:13:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia

Laburpena:

Pako Etxebestek erronka jo zien, Ataunen Joxe Miel Barandiaranen omenaldian parte hartzeko, hura ere pailazo xamarra izandakoa zela kontatuz. Egun hartakoak kontatzen ditu. Harrezkero, Euskal Herriko hainbat lekutatik deitzen hasi ziren.

25. Hasierako pailazo emanaldiak

- **Erref:** DON-200/030
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 01:13:14. **Bukatu:** 01:14:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia

Laburpena:

Imanol Urbietarekin harremana eginda, Zarautzera joaten hasi ziren. Enkarni Genua eta Manolo Gomezekin harremana egin zuten, eta pailazoen saioa eta txotxongiloena tartekatuz aritu izan ziren. Xabier Gereñorekin ere elkarlanean aritzen ziren.

26. Garai hartako pailazo ia bakarrak

- **Erref:** DON-200/031
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 01:14:47. **Bukatu:** 01:16:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

Kantautoreen fenomeno hasita zegoen. Pailazo zirela, saiatu ziren beste talde batzuk bultzatzen baina ez zuten lortu. Telebista sortu zenean, euskarazko pailazo ia bakarrek ziren.

27. Xabier eta biak Txema Vitoriarekin batu zirenekoa

- **Erref:** DON-200/032
- **Iraupena:** 0:05:03. **Hasi:** 01:16:07. **Bukatu:** 01:21:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia

Laburpena:

Telebistatik deitu zietenean, hainbat desadostasun sortu ziren "Kixki eta Mixki eta Kaxkamelon" pailazo taldean eta, azkenerako, Xabierrek eta biek jarraitzea erabaki zuten, Txema Vitoriari gonbita eginez.

28. "Txirri eta Mirri eta Txiribiton" izena

- **Erref:** DON-200/033
- **Iraupena:** 0:03:43. **Hasi:** 01:21:10. **Bukatu:** 01:24:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia

Laburpena:

Telebistako grabaketak hasi baino lehen, epaiketara deitu zituzten Xabier eta Piter, hirugarren taldekideak salaketa jarri zielako. Orduan, izena aldatzea erabaki zuten, eta "Txirri eta Mirri eta Txiribiton" izena erregistratzea.

29. "Don, don, kikilikon" saio aitzindaria

- **Erref:** DON-200/034
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 01:24:53. **Bukatu:** 01:26:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Kultura » Aisia » Hedabideak » Telebista

Laburpena:

"Txirri, Mirri eta Txiribiton" taldea telebistarako hasi ziren. Programaren izena "Don, don, kikilikon" zen eta euskarazko lehenengo programa dramatikoa horixe izan zen. Orain aktore ezagunak diren asko orduan hasi ziren.

30. "Don, don, kikilikon" saioaz

- **Erref:** DON-200/035
- **Iraupena:** 0:02:21. **Hasi:** 01:26:22. **Bukatu:** 01:28:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Kultura » Aisia » Hedabideak » Telebista

Laburpena:

"Don, don, kikilikon" telebista saioa lau urtez egin zuten eta aldatuz joan zen. Saioa nolakoa zen kontatzen du. Juanjo Franco errealizadoreak "Chroma key" teknikarekin egindako lana kontatzen du.

31. Pailazo lanak: diru gutxi eta nekea

- **Erref:** DON-200/036
- **Iraupena:** 0:02:46. **Hasi:** 01:28:43. **Bukatu:** 01:31:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Kultura » Aisia » Hedabideak » Telebista

Laburpena:

"Kixki, Mixki eta Kaxkamelon" moduan aritu zirenean, ez zuten dirurik irabazten; gastuak estaltzeko eta dohaintzak egiteko erabiltzen zuten irabazitakoa. Telebistako lana nekagarria zela kontatzen du. Lau urteren ostean, lagatzea erabaki zuten.

32. "Don, don, kikilikon" saioan kolaboratzaile asko

- **Erref:** DON-200/037
- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 01:31:29. **Bukatu:** 01:33:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Kultura » Aisia » Hedabideak » Telebista

Laburpena:

Lau urtean zehar, kolaboratzaile asko izan zituzten. "Don, don, kikilikon" saioko lehenengo gidoigilea Andoni Egaña izan zen. Beste hainbat ere izan ziren. Miramonen azken programa egin zutenean, ospakizun handia egin zuten. Herri Gogoia disketxearekin "Kixki eta Mixki eta Kaxkamelon" taldeak diskoa grabatu zuela aipatzen du.

33. "Funtzioa" programaz

- **Erref:** DON-200/038
- **Iraupena:** 0:03:53. **Hasi:** 01:33:37. **Bukatu:** 01:37:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Kultura » Aisia » Hedabideak » Telebista

Laburpena:

Miramonen "Don, don, kikilikon" programa azkenengoz grabatu ostean egindako festan, Mikel Lejartza zirikatu zuten. Hark show bat egiteko proposamena egin zien eta azkenerako, produktore bat hartuta, "Funtzioa" izeneko saioa egin zuten hiru urtez. Joseba Arregik Euskaldunon Egunkaria

sortzen ari zirenekin ika-mikak zituen; eta "Funtzioa" saiokoek jaialdi bat egin zuten Egunkariaren alde, eta Joseba Arregiri egurra eman ziotenez, bertan behera geratu zen "Funtzioa" saioa.

34. "Funtzioa" programan errebeldeak

- **Erref:** DON-200/039
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 01:37:30. **Bukatu:** 01:39:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Kultura » Aisia » Hedabideak » Telebista

Laburpena:

"Funtzioa" programan errebelde xamarrek zirela kontatzen du. Zuzeneko programa zenez, oso lan handia zen.

35. "Funtzioa" saioak arrakasta

- **Erref:** DON-200/041
- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 01:40:33. **Bukatu:** 01:43:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Kultura » Aisia » Hedabideak » Telebista

Laburpena:

Garai hartan, telebistan bi kate zeuden eta euskal telebista hirugarrena zen. "Funtzioa" saioak arrakasta handia izan zuela kontatzen du. Hainbat anekdota kontatzen ditu. Sari oso onak ematen zituzten.

36. "Funtzioa" saioko kankak

- **Erref:** DON-200/042
- **Iraupena:** 0:01:21. **Hasi:** 01:43:05. **Bukatu:** 01:44:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Kultura » Aisia » Hedabideak » Telebista
- Ohiturak eta bizimodua » Kankak » Bestelako kankak

Laburpena:

"Funtzioa" saioko kankak berak sortzen zituen. Esperimentatu egin zuen eta arrakasta izan zuten.

37. Telebistako betoa kendu zutenekoa

- **Erref:** DON-200/043
- **Iraupena:** 0:04:00. **Hasi:** 01:44:26. **Bukatu:** 01:48:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Kultura » Aisia » Hedabideak » Telebista

Laburpena:

Xabier eta biak pailazo taldeekin berrogeita bat urtez aritu ziren elkarrekin. Aurrezki Kutxak umorezko esketx lehiaketa antolatu zuenean, finalerako Xabier eta biak deitu zituzten (orduan, telebistan betoa zeukaten). Telebistakoekin izandako bilerak eta ika-mikak kontatzen ditu.

38. Telebistan egindako programak

- **Erref:** DON-200/045
- **Iraupena:** 0:02:26. **Hasi:** 01:51:24. **Bukatu:** 01:53:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Kultura » Aisia » Hedabideak » Telebista

Laburpena:

Hainbat programa sortu zituen euskal telebistarako: "Balinda", "Sikofonia", "Txiskola" Kike Amonarrizekin... Ikuska ekoiztetxearekin beste hainbat saio egin zituen. "Sikofonia" saioan aurkezle lanak egin zituen; elkarriketa serioak umorearekin nahasten zituzten. Ardantza, Setien... izan ziren.

39. Gonbidatuak zaintzeko legea

- **Erref:** DON-200/046
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 01:53:50. **Bukatu:** 01:55:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Kultura » Aisia » Hedabideak » Telebista

Laburpena:

Bere telebista saioetan, gonbidatuekiko zituzten legeak aipatzen ditu. Jaime Otamendik betetzen zuen gonbidatuekiko ardura.

40. Politikari ezagunak bere saioetan

- **Erref:** DON-200/047
- **Iraupena:** 0:03:02. **Hasi:** 01:55:55. **Bukatu:** 01:58:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Kultura » Aisia » Hedabideak » Telebista
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Jon Idigoras Pancho Villarena egiten jarri zutenekoa eta Joseba Arregi gonbidatu zutenekoa kontatzen du. "Sikofonia" saiorako Arnaldo Otegi elkarriketatu zuen.

41. Pailazoen musika: tradizioa oinarri, umeak helburu

- **Erref:** DON-200/049
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 01:59:40. **Bukatu:** 02:02:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Musikari onak izan dituzte beti lankide, pailazo moduan ibili direnean. Tradizioa baliatzen zuten eta umeentzat sortzen zuten, ez gurasoentzat. Musika maila ona zeukaten, kolaboratzaile oso onak izan zituztelako.

42. Tradizioa zer den

- **Erref:** DON-200/050
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 02:02:10. **Bukatu:** 02:04:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Tradizioa zaintzea eta mantentzea beretzat zer den azaltzen du.

43. Nemesio Etxaniz

- **Erref:** DON-200/051
- **Iraupena:** 0:02:16. **Hasi:** 02:04:06. **Bukatu:** 02:06:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Artistak

Laburpena:

"Paristik natorren" kantari buruzkoak kontatzen ditu. Nemesio Etxanizekin harreman zuzena egin zuten; izpiritu librekoa zela dio.

44. Pailazoa: antipedagogikoa eta matxinoa

- **Erref:** DON-200/053
- **Iraupena:** 0:01:48. **Hasi:** 02:06:44. **Bukatu:** 02:08:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia

Laburpena:

Ikastolen bidea ez zuten asko landu. Irakasle batzuek nahi izaten zuten pailazoak pedagogikoak izatea. Pailazoa berez antipedagogikoa eta matxinoa dela dio.

45. Gaiztoaren garrantzia istorioetan

- **Erref:** DON-200/055
- **Iraupena:** 0:02:17. **Hasi:** 02:10:25. **Bukatu:** 02:12:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia

Laburpena:

Pailazoekin aritu izan direnean, azken urteetan, gaizto baten figura jartzen zuten. Milaka urtetako tradizioa izan dela eta umeengan prozesu garrantzitsua sortzen duela azaltzen du.

46. San Telmo museoari buruzkoak

- **Erref:** DON-200/057
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 02:13:09. **Bukatu:** 02:15:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Beste adierazbide batzuk

Laburpena:

San Telmo museoa oso ezaguna du. Umetan txabolak egiten zituzten eta bihurrikeriak egitera sartzen ziren. Bere familiakoek askotan abesten zuten San Telmon. Franco Donostiara joaten zenean, afaria egiten zioten elizan.

47. Txistularien ofizioa duintzen

- **Erref:** DON-200/059
- **Iraupena:** 0:03:22. **Hasi:** 02:17:14. **Bukatu:** 02:20:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Musika asko sortu du bizitzan zehar. Txistularia izan da. Bera hasi zenean, krisian zegoen txistua. Txistularien ofizioa duintzeko, askotariko lanak egin izan ditu.

48. Kontzertu didaktikoak txistulariekin eta orkestrarekin

- **Erref:** DON-200/060
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 02:20:36. **Bukatu:** 02:21:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Kontzertu didaktikoak egiten txistulari taldearekin hasi ziren. Hamar urtez aritu zen Euskadiko Orkestrarekin familientzako kontzertuak antolatzen.

49. Ez da sari eta fama zalea

- **Erref:** DON-200/061
- **Iraupena:** 0:02:59. **Hasi:** 02:21:26. **Bukatu:** 02:24:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia

Laburpena:

Euskal Herriko txistularien elkarteak urrezko domina eman zion. Ez da oso sari zalea. Garrantzitsuena egunerokoa dela dio. Famatua izatearena ez zaio asko gustatzen. Gauza askotaz ez dagoela oso ziur azaltzen du.

50. Pailazoarena egiten hasi eta pailazo bihurtu

- **Erref:** DON-200/063
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 02:25:09. **Bukatu:** 02:27:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia

Laburpena:

Pailazo izan zen baina orain ez dauka beharrik. Hasieran, pailazoarena egiten hasten zara eta azkeneko pailazo bihurtzen zara. Pailazoa da dakiena bizitzan beti porrota izango duela. Seme-alabak nahiko pailazo ikusten ditu eta poz ematen dio.

51. Euskara, txikitasunaren eta edertasunaren aldarria

- **Erref:** DON-200/066
- **Iraupena:** 0:02:37. **Hasi:** 02:32:26. **Bukatu:** 02:35:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua

Laburpena:

Euskara atsegin handiz bizi du, gaztelania bezainbeste. Txikiak bizitzeko duen eskubidearen aldarria eta edertasuna dira euskara beretzat. Euskarak bizitzeko balio izan duela azaltzen du, baita gizarte bat kohesionatzeko eta tirano askori aurre egiteko ere.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-01-16

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com